

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. 4. Finkantzer. 1. Azaroa 27. 1990

41. Zenbakia

UDAL EUSKARA-KONTSEILUA

60 pta.

1990. Azaroa

EUSKALTZALEEN BILTZARRA HONDARRIBIAN (1902-1990)

Gaur egun euskararen alde lanean ari diren elkarlanean zaharrena EUSKALTZALEEN BILTZARRA dugu. Euskal Esnalea, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta geragoagor sortuak dira eta nolabait haren eraginez, zuzen edo zeharbizidez. Horregatik zioen Mixel Itzainak Euskaltzaleen Biltzarra denon "amatrix" dela.

Hendaian sortu zen, 1901. urteko irailaren 16ko bilkuran, baina orduko izena, "Fédération Littéraire Basque", eta antolaketa behin behinekoak ziren, probisionaliak. Beteiko izena eta antolaketa Hondarrribian eman zizkioten 1902.eko irailaren 11an. Bi herriek, mugan zeudelako hautatu ziren.

Elkarfe honen lehen helburu nagusia euskararen ortografia baf egilea izan zen, ortografia bakarra euskaldun guzientzat finkatzea, Ipar eta Hegokoentzat. Helburu honi lortua dago gaur egun urte eta lan asko igaro ondoren, baina bidearen hasiera Hendaia eta Hondarrribiko bilkura haieten egongo da beti. Bilkura historikoak izan ziren, beraz.

Hendaia bilkura Hendaian bertan ospatu zen ihaz. Udaletxe zahararen oroitari bat jarri (1). Hondarrribikoa aurten ospatuko dugu hernen bertan, azaroan 24ean. Larunbat honetan hitzaldiak izango dira eta oroitaria ere jarriko da Udaletxeko arkupeetan. Ospakizunerako deia Euskaltzaleen Biltzar-


rrak, Euskaltzaindiak eta Hondarrribiko Udalak sinatu dute.

Bestetik, ehun urte bete dira aurten Klaudi Otaegi maisu euskaltzalea hil zenetik, eta hori ere ospatuko dute bilkura berean aipatutako erakundeek. (2)

Hitzaldietan Alfonso Oronoz Alkateak, André Luberrigak, Azkaineko Alkate eta Euskaltzaleen Biltzarren buru denak, Mikel Zalbidea ikerlariak, Jean Haritselhar Euskaltzainburuak eta Patri Urkizu irakasleak hartuko dute parte, Eskiñia abesbatzak ere kanta batzuk eskainiko dituztenak. Ekitaldia irekia izango da herri guztientzat.

Oroitaria bere tokian jartzeko, biltzarra non izan zen jakin beharra zegoen. Seguruenik Herriko Etxean bilduko zirela eta. Udak Artxibora jo zuten beharrezko frogaren bila. Lihuru zaharrak miatu eta han ez zen Euskaltzaleen Biltzarrik inon aipatzen. Hotelen batean edo bilduko ziren agian. Non, ordea? Etsi egin behar, bada, oroitarririk jarri gabe. Gure artxibari gaztea, ordea, ez da erraz amore ematen duten horietakoa eta berriro murgildu zen Bergararik itzuliberriak ziren Artxiboko Historikoko paper zaharretan eta horra nonuste baino azeria ugariagoak aurkitu zituen.

Biltzarren aipamena hantxe zegoen lehen ere, jakina, baina "Euskaltzaleen Biltzarra" gabe "Fédération Littéraire Basque"



ZELESTINO JAUREGUI «TITTINO»

Oraingo honetan arrantzalea ez den portuar bat ekarki dugu gure orrialdeetara: Zelestino Jauregi, *Tittino*. Arrantzalea izan ez bada ere, badu zenikusi zuzena itsasoarekin eta barkuekin. Bere kalitateen artean bada gaur egun harrigarria gerta daitekeena zenbaitentzat: Zelestino izan da Hondarrribian argia barkoakari jartzen lehemiakoa. Berari etorri zitzaion gogora kotxeetan izaten zen bezala posible zela barkoetan argia izan... eta pentsatu eta egin. Baita martxan jarri ere.

Horretaz gain, makina bat motor asmatu du bere tallerrean; ibiltzen ziren motorrak, itsasoan barrena milak eta milak egin zituzten motorrak. Bere etxera hurbildu gera oraingoan eta, emaztearekin batera, tertulia goxoan hartu gaitu.

(8. orrialdera)



VILLE DE FONTARRÉBIE FÉDÉRATION LITTÉRAIRE BASQUE

Congreso du 11 Septembre 1902

À tous ceux de notre Patrie et à la Grande Basque de France et de l'Étranger — Réunir tous les Membres de la Société par l'Association — Ouvriers et Bourgeois.

À tous les amis de l'Épique et du Roman de la Basque qui désirent s'associer avec les Membres de la Société régulièrement convoqués.

ORDRE DU JOUR :

1. Congrès de la Société de la Grande Basque.
2. Lecture — Discussion — Approbation des Statuts de la Société, sous la présidence de FÉDÉRATION LITTÉRAIRE BASQUE en son nom: (le président sera élu par la Société au cours de la séance).
3. Adoption des Statuts de la Société.
4. Election de la Commission d'Administration.
5. Discussion de l'ordre du jour.
6. Proposition de la Société et de la Grande Basque.
7. Proposition de la Société et de la Grande Basque.
8. Proposition de la Société et de la Grande Basque.

Paris, le 11 Septembre 1902.

Le Secrétaire général,
GUILBERU. Le Président,
ADÉMA.

ere bikura prestatu bitartean tentsio handi xamarra nabari da Sabino Arana, Broussain, Azkue, Campion eta beste batzuen iskrinbuetan. Besteak beste, Aranak 320 lagun lortu zituelako Bizkai aldean Hondarribiko Biltzarrean botua bere ortografiaren alde eman zezaten, besteak, berriz, arazo teknikoak zeritzazaten eta edozein herritar ez zela gai ortografiaz erabakiak hartzeko. Adema presidenteak eragozpen horiek ikusita Hondarribiko biltzarrea bizpahiru urtez atzeratzea proposatu zuen, baina azkenean iraillean biltzea erabaki zuen.

Horretan bukatu ziren ortografia batzeko garai hartako kongresuak eta Euskaltzaleen Biltzarra Iparraldean batez ere errotu zen. Baina hazia ereina zen eta noizpait jaso genuen fruitua Euskaltzaindiaren eskutik. Ez zegoen etenik bi erakundeen artean, alderantziz baizik, Hondarribian onartu zen bakide zerrendako batzuk Euskaltzaindiko lehen hautatuak izango bail ziren handik urte batzuetara:

Azkue, Campiñon, Urkixo, D. Agirre, Broussain, Adema-ren iloba, Lacombe, Landerretche, e.a. Sortu bezain laster, Euskaltzaindiak ere ortografia eta euskararen batasuna izan zuen ardura nagusi.

Hondarribia bere hondar alea eskaini zuen eginahal hauetan eta hori da larunbatean ospatuko duguna. Egun horretako hiztaldietan berri gehiago ikasiko dugu.

J. A. Letamendia

- (1) Igazko bikura horren berr **Hondarribia**-ren 36. alean eman genuen, bestealde Euskaltzaleen Biltzarra eta Hondarribian buruz 19. zenbakian idatzi zuen Martin Ugaldek.
- (2) Kludio Otaegiren berr zabalagoa ikasi nahi duenak **Hondarribia** aldizkariaren 35 eta 39. zenbakietara jo dezake. Juan San Martinek eta bi irakasleak egindako artikuluetara. hilaren 24ean Patxi Urkizuren hitzaldia ere horretaz izango da.

druzaina Hiriart, idazkari laguntzaile Daranatz, eta kontseilariak Arbelbide, Azkue, Broussain, Guerra, Legaz eta Serapio Mujika. Azken hau Hondarribiko artxibari ezaguna zen.

115 bakide onartu omen ziren eta zerrrendan Hondarribiko bi aipatzen dira: M. Etxebarria eta aipatuberrri dugun Serapio Mujika. Pentsatzezkoa da harreman hauetan handia izango zela ormaiztegiar euskaltzale eta jakintsu honen eragina eta biltzuraren antolaketa zuzen ariko zela seguruenik.

Zoritxarrez, gaizki bukatu omen zen Hondarribiko Biltzarra. Katazka bizitan ibili omen ziren arratsaldeko gaiak ezin erabakiz, eta jendeak haserre eta minduta aldegin omen zuen azkenean. Hori dela eta, handik egun gutxiara Broussainek Adéma eta Guilbeuren dimisioa proposatzen zuen eskutitz batean, bilera irmotasunez zuzentzeko gai izan ez zirelako.

Giro nahasia ez zen berria. Urtean zehar



Ekzerretik eskuinera: Karmelo Etxegarai, Arturo Campiñon, Julio Urkixo, Txomin Agirre, Serapio Mujika eta Juan Karlos Gerra. 1902an Euskaltzaleen Biltzarreko kideak ziren.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Azaroak 26 Abenduak 2 : FIZ
Abenduak 3 - 9 ERAUSKIN
Abenduak 10 - 16 : MAYI
Abenduak 17 - 23 : IRAOLA

Mayi, Alm. Alonso Kalean - ☎ 64.21.91
Iraola, J. Igarite Kalean - ☎ 64.10.27
Erauskin, S. Pedro Kalean - ☎ 64.10.18
Fiz, Donostia Kalean - ☎ 64.43.16

TXANDAKO OKINDEGIAK

Azaroak 25 : MARTINEZ
Abenduak 2 : ARRATIBEL
Abenduak 6 : GARMENDIA
Abenduak 8 : MARTINEZ
Abenduak 9 : ARRATIBEL
Abenduak 16 : GARMENDIA
Abenduak 23 : MARTINEZ

Arratibel, Zubieta Kalean - ☎ 64.19.75
Garmendia, Santiago Kalean - ☎ 64.11.36
Martinez, Kale Nagusian - ☎ 64.12.12

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan

LARUNBATETAN
Arratsaldeko 7,30etan Portuan

IGANDEETAN
Goizeko 8,30etan Betherranen
Goizeko 9etan Amuten
Goizeko 9,30etan Guadalupen
Goizeko 11etan Portuan

Irakurleen Gutunak



Hiroki, Gurihoitz eta Iuri.

JAPONIATIK HONA, EUSKALDUNTZERA

Hondarrizian, 90-X-23

Lagun mailek:

Ni euskara ikastera hona etorritako japoniarra naiz. Igazko maiatzean etorri nintzen hona eta gutzira hamahiru hilabete edo daramatzat Euskal Herrian. Tokyoko unibertsitate batean azkeneko kursoa egiten ari nintzelarik, interes linguistikoa egatik hasi nintzen euskara ikasten, gramatika edo teoria, batipat. Teoria piska bat jakin ondoren, euskaraz hitz egiten jakiteko gogo sortu zitzaidan, ikertzeko materiala baino lehenago, eguneroko bizitza erabiltzeko tresna bat da hizkuntza. Ikerketa egiteko ere, hizkuntzalari hizkuntza hori praktikan erabiltzeko gai izatea komenigarria eta beharrezkoa da, gainera. Japonian, ordea, euskara praktikaz ia-ia ezinezkoa zenez gero, hona etorri naiz.

Hona etorri nintzenetik euskara eta Euskal Herriaren egoera ikusi izan dut eta horretaz asko pentsatu izan dut. Eta orain euskaldunoi nik ikusi eta pentsatutakoa kontatzeko asmotan ari naiz karta hau idazten. Baina esan nahi dudanaren laburpena edo zein lekutan ikusten duzue, beraz, J.A. Arzteren esaldi hau: "Hizkuntza bat ez da gal- tzen ez dakitenez ikasten ez dutelako, dakitenez hitz egiten ez dutelako, baizik." Esaldi honek arrazoi gutzia du, nik uste. Dena den, ni nire hitzez eskribatzera noaizue.

Hasteko, zergatik aukeratu nuen euskara kontatuko dizuet. Unibertsitatean ingelese filologia ikasitakoa naiz, eta ingelesez aparte, asignatura bezala alemaniera, eta nire kabuz gaztelania ere piska bat ikasten nituen. Hiru horiek, ordea, denak indoeuroparrak di-

ra, hots, niretzat antzerakoak zirenez, beste mota batetako hizkuntza bat jakiteko gogo sortu zitzaidan. Mota desberdinetako hizkuntzak ikastea filologia edo linguistika ikasten duenarentzat komenigarria izaten da, gainera. Eta zein hizkuntza ikasiko nukeen pentsatzen hasi nintzen. Aukera pila bat zegoen, noski, munduan 3.500 - 5.000 ra inguru hizkuntza omen daude, eta hizkuntza indoeuroparrak horietako batzu bestenik ez dira eta. Orduan kasualitatez nire linguistika-irakasleak euskararen berri eman zigun. Zer nolako hizkuntza den, bere egoera nolakoa den eta abar. Hori entzun bezain laster asko interesatu zitzaidan hiru arrazoiagatik. Lehen-dabiz, euskara Europako mendebaldeko puntan egon arren, indoeuropar hizkuntze-kin zerikusirik ez izateagatik, ondoren, albo-ko hizkuntzek baino nire ama hizkuntzaren antz handiagoa izateagatik, eta azkenik, hil-zorian dagoen hizkuntza berpuzteko egiten ari zaretzen egundoko ahaleginagatik. Baina lehenengo kontua ez zen hain harrigarria izan, Japonian bertan ere japonierarekin zerikusirik ez daukan hizkuntza bait dago. Bigarrena ere ez zen txunditzezko modukoa izan, euskara ezezik, japonieraren antza daukaten hizkuntza batzu badaude, adibidez finlande- sa, hungariara, turkiera eta abar. Hirugarrena izan zen benetan harrigarri eta hungariar- gertatu zitzaidana. Gizakien historian zehar eta munduan zehar, hizkuntza asko desagertu izan dira eta orain ere batzu hiltzen ari dira. Hiltzera dihoan hizkuntza salbatzeak ia-ia ezinezko dirudi. Behin desagertuarenen il- dion jarrit gero, beti, inolako erremedio- rik gabe hil egin ohi izan da, naturaren araua izango baitz bezala. Nik dakidanez, orain arte

jendearen ahaleginak hizkuntza salbatutako hizkuntza bakarria dago: hebraiera. Bestenik ez dut ezagutzen: Horregatik euskararen kasua niri gutiz harrigarria irudituko zitzaidan. Beraz, euskara bera bakarrik ez, euskara salbatzeko gogor saiatzen ari den jendea ere interesatu zitzaidala esango nuke. Horregatik, euskara ikastea eta mundu honetan sar- tzea aukeratu nuen.

Gaur egun, Helduak euskaltegietan, umeak ikastoletan euskara ikasten ari dira, eta euskaraz dakitenez kopurua handitu egin denaz, euskararen egoera, jendearen ahale- ginei esker, garai batean baino hobea dela esan daiteke. Hala ere oraindik ez dugu konfor- matu behar, noski. Dena den, J.A. Arztek dioen bezalaxe, momentu honetan euskaraz dakitenez euskara erabiltzea eta euskaraz bi- zitzea da garrantzitsuen. Gurasoak euskal- dun zaharrak izan arren, orain euskara euskaltegian euskalduntzen (ez alfabetatzen) ari den gazteyende asko dago, gurasoek eus- kara irakatsi ez ziotelako. Beharbada gura- soek pentsatuko zuten euskaraz ez zuela ezertarako balio izango, eta nagusia gazte- lania zenez hau irakastea bakarrik nahikoa izango zitekeela. Horrelako pentsakera, os- tera, ez da kabiltzen nire buruan. Nahiz eta gi- zarte honetan gaztelania jabe eta nagusi delako egia latza izan, euren seme-alabek euskara ere jakingo balute, hori aberastasu- handia izango litzateke. Hizkuntza, esate ba- tarako, elkar komunikatzeko tresna bat da. Baina kulturaren oinarria ere bada. Kultura baldin bada, tresna bezala erabiltzen ikastez gain, gure izpiritua aberasteko eta gure bu- ruz jakiteko ere balio du. Horretaz aparte, eus- kalduna euskalduna izateko eta bere nortasuna argiagi izateko, euskara ezinbes- teko da.

Azkenik, beste gauzaitxo bat esan behar dizuet. Kalean askotan tristetu egiten nauzen gauzen bat zera da: Jo dezagun kaleko es- paloi batzerrean hiruzpalaur andre hizketan ari direla, euren haur txikiak inguruan jo- sten dabiltzalarik. Arma horiek, euskaraz bada- kite, baina euren artean gaztelaniaz ari dira eta noiz behinka, umei mintzatzeko darabil- te euskara, adibidez, "kontuz, Xabierto!" "pozik al zaude, Mirentxu?" eta abar, eta abar. Beno, umeekin euskaraz aritzea oso on- do iruditzen zait, baina helduen artean ere euskaraz aritzen badira, ere hobeto. Badakif hitzkatagatik edo, gaztelaniaz hitz egiteko ohi- tura daukatela, baina niretzat hori aitziakia ederra bestenik ez da. Ohihura hori gutiz al- datu duten pertsona batzuk ezagutzen ditut. Euskara umei transmititu arren, gurasoek horrela jarraitzen badute, euskarra bati ume- gauza bezala gera daiteke. Eta, noski, eus- kara ez da ume-gauza. Elebitasuna ez da gauza txarra, baina euskara eta gaztelania- ren kasuan, hortaz, gutxiengoaren hizkun- tza eta gehiengoarena gizarte berean eta

momentu berean bizi behar baldin badira, kontu handiz ibili behar da, benetako elebitasunik existitzen ez duelako, beraz, bi hizkuntzen arteko oreka mantentzea zaila baino zailagoa delako. Bietariko bat, argiago esanda, gehiengoaren hizkuntza beti nagusi bihurtzen da.

Dena den, euskara Euskal Herriko hizkuntza nagusia izateko eguna etortzea eta edozein txokotan eta edozein momentutan euskara entzun eta hitz egin ahal izatea espe-ro dut zinzinez.

Gaurkoz besterik ez. Eskerrik asko azken leioraino irakurtzeagatik eta har ezazue nire agurrik beroena.

Besarkada eta musu handi batekin,
Agur t'ardi

HIROMI YOSHIDA

Txon bizardun batek kontatu digunez, gutun hau bidali eta gero, EGA titulua lortu berri du Hiromi-k. Ez gaitu harritzen. Zononak Hiromi-ri hondarrigarri guztien izenean!

DON PEDRO AMONARRAIZ

Hondarrribian, 1990.eko Urriaren 11a.

HONDARRIBIA Aldizkaria.

Zuzendari Jauna Agur:

Aurten beteko dira 25 urte, Don Pedro hil zenetik.

Bai, 1965.eko Azaroaren 17an hil zen Don Pedro Amonarraiz Apaiza. Urte Askotan Hondarrribian Apaiza izana.

Nik orduan 24 urte nituen eta berak egin zuen lanaz ondo jabetzera ez nintzen inntsi.

Mutil gazteekin, lan asko egin zuen: Luis-tarrak; Kerizpe, bere zine, teatro eta guzti; Apostoladutza taldeak, J.O.C. eta abar.


Badakit baserritar eta arrantzaleekin ere ibili zela.

Hainbat jende bizi da oraindik, berak lagundu eta digatuak! Eri, Zahar, Familia... Bere lanak ez zuen mugarik. Ijitoak ere bere buru eta bihotzean ba zeukaten tokirik, eta bai lan egin ere halekin.

Jainkoaren apaiza. Sinisman haundikoa. Dena lana eta dena otoi-tza. Gizon haundia zen, et alaberakoa zuen bihotza.

Urteotan, berarenganako orotzapena eta esker ona bihotzen gordetik eduki dut. Orain, 25. urtemuga dela eta egokia iduritu zait DON PEDRO gogotara ekartzera.

Pedro M. Iza



POSTE ARRISKUTSUA

Zuzendari jauna:

Mourlane Michelena kaleko errebueltan batean poste eder bat dago kamioian bertan, nola esplikatu ez dakit eta hor juaki dizu fotografia. Erozeñek posible du motorrian gabaz juanta jo eta bertan seko geldiditu. Postea telefonikana omen da. Ez da posible espaloian jartzea? Kamio hori konpundu zutenean, zergatik ez zuten aprobetxatu kablia lurpian sartzeko? bai omen dago horretako zolua prestatua ta.

Agur eta eskerrik asko.

Koldo Martinez

D.N.I. 15 091 520

OHARRA

"Hondarribia" aldizkarira orain arte ez da irakurleen gutunik etorri, argitaratzeko behintzat. Gaur, berriz, bi ditugu. Oso ondo iruditzen zaigu oharrak, iriziak eta proposamenak bidaltzea. Horretarako izen-abizenak jartzea eskatzen dizuegu eta karnetaren zenbakia, behar izanez gero bidaltzailearen notasuna egiaztatu ahal izateko. Eskulitzak luzeegiak ez izatea ere komeni da. Gehienez, folio bat espazio bikoitzez.

"HONDARRIBIA"





ZULOAGA ETXEAREN INAUGURAZIOA

Urriaren 6an Zuloaga Etxearen inaugurazioa izan genuen Hondarrribian. Etxe honetan Hondarrribiko Artxibo Historikoa eta Udal Biblioteka joango dira.

Ospakizun horri zegokion garrantzi kulturala aldarrikatzeko herriko artisten erakusketak bat antolatuta zen bertan. Pinturak ziren gehienak, honako artista aukeratuak eginak: Albizu, Aikain, Altolagirre, Camps, Gorostidi, Grazeña, Matxinbarrena, Maura, Noain, Ortiz, Sagartzazu, Sorondok, Urdiales, eta Urtizbereak. Era guztietako teknikak, estiloak eta gaiak ziren: astraktoak, paisajeak, bodegoiak, figurak, itsas gaiak, e.a. Sarrearen parean Nestor Basterretxearen eskultura bat zegoen, monumentu proiektu bat: "Hondarrribiko herriari omenaldia, historian zehar bere askatasunaren alde izan dituen borrokatzaile". Kategoría eta balio handiko erakusketak izan zen, zalantzarik gabe, bai firma eta bai obren aldetik. Ez ahal da azkena izango!

Inaugurazioaren orduan hirurogei bat lagun hurbildu ziren Zuloaga etxera, artistak, politikoak, eta herritar kulturazaleak. Hitzaldi aretoan mahai buruan Alfonso Orozko herriko Alkatea zegoen, Kontxita Portu Kultur zinegotzia eta Gipuzkoako Diputaziotik etorritako Imanol Murua eta Telleria jaunak. Hitzaldi laburrak egin zituzten inaugurazioaren garrantzia azalduz. Kontxita Porturen hitzak Artxibo Historikorearen berri emanez ondoko leioetan laborbididuko ditugu. Ondoren, Don Martin herriko Parrokoak etxe berriatua bedeinkatu zuen.

Gero, goiko solairura igota, dokumentu sorta ikusgarri bat zegoen prestatua bildutako erakusteko: Artxibategiko akta liburu zaharren eta bitxiak, tartean 1611ko sorgin usteko azua eta 1648ko esklabu baten salmentarena. Begoña de Andrés artxibariak egin zuen azalpena, besteak beste, dokumentuen apaindasuna eta idazkera txukuna azpimarratuz.

Azkenean pintxoak eta edariak eskaini zitzaizkien bertara hurbildu zirenei.

ZULOAGA ETXEA

Zuloaga etxea konpontzea 75 milioi inguru kostatu da. Horietako 33 Foru Diputazioak eman ditu; 26 milioi Kultur Ekipamenduen Foru Plangintzaren kargura, eta 7 milioi Monumentu Historikoen berriztapenerako programatik lortuak.

Etxea Hondarrribiko Udalarena da. Pilar Céspedes andreak beran zegokion zatia eman zion Hondarrribian eta ondoren Udala gogotik saiatu zen beste zatia ere herriarentzat lortzen. Jauregi dotore honek bi gauza gordeko ditu bere barnan: Hondarrribiko Artxibo Historikoa eta Udal Biblioteka.

Jauregia, Martin Sanz Zuloaga eta Katalina Ubilla jaun- andreen ondasunen artean aipatzen zen 1507 urtean. Hala ere, gerrak direla eta, kalte eta konponketa ugari izan ditu.

1638ko setioan puskatu zuten. Ondoren Pedro Ignazio Zuloaga eta Moyua jaunak berregin erazi zuten. Beronen eta Maria Casadevante Gaycoegui bere andrea zenaren

deiturak agertzen dira kanpoko harmarrian. 1753 urtean berriro eraiki eta hurrengo urtean, Hondarrribia berriz setiatu zutelarik, atzera desegin. Ez zen 1890 arte berregin, Sofia Manso andrearen ardurapean.

Etxe honetan bere egoitza izan zuen "Amigos de Fuenterrabía" bazkuna eta 1892 urtean sortutako elkarte horretan herriko handiak bakarrik ziren bazkide.

Zuloagatarrek kargu ospetsuak izan zituzten Hondarrribian, besteak beste, herriko Alkatetzak.

ARTXIBO HISTORIKOA

Hondarrribia, Alfonso Villak 1.203 urteko apirilaren 18an egin zuen hiri. Fundazioaren asmoak eta helburuak militarrek eta ekonomikoak ziren, noski, bere kokiera estrategikoa gogoan harturik. Ez dira gordetzen ardaliko garai haietako pribilegioak eta frankiziek. Fundazio karta, beste dokumentu eta agiri asko bezalaxe, galduta egin zen, eta ondoko aipamenetan bazik ez dira jaso.

Artxiboko eduki mardula XV mendearen erditik aurrera hasten da osatzen, 1.481etik aurrera bait dugu nola halako jarraien kronologikoa. Aurreko garaietatik dokumentu bakanduak besterik ez bait dugu.

Udal gizonak arduraz bilduko zituzten lehen dokumentuak pribilegioak eta frankiziek izango ziren, noski, haiekin jasotzen bait ziren hiriarren eskubideak, eta ondoko gortea behariko zituzten beren eskarietan indarririk izango bazuten.

Biduma, jakina, gero eta handitzena joan zen eta dirudienez garaiak arduragabekeriak nahaspila eta desordena sortu zituen artxiboan. Hori dela eta 1.599ko urtarrilaren 17an bilkura berezi bat egin zuten artxiboaren antolaketa erabakitzeko. Horrela, gaien arabera sailkatu zituzten dokumentuak kutxetan sartuta, paperak errazago aurkitu ahal izateko zerrendak eta aurkibide egokiak eginez.

Badirudi, ordea, XVI mendetik aurrera eza horrelako ahaieginek egin eta egoera,



aldiz, gero eta okerrago bihurtu zela dokumentuen pilaketa gaitzagatik.

Artxiboa seriooki antolatzeko lehen planingina Serapio Mujikari zor zaio.

1.531ko ordentantzek Artxiboa behar bezala zainitzeko agindu zehatzak zeuzkaten arren badirudi ez zirela hainzat hartu, errejidoarek kezu ziren artxiboko nahasketagatik eta dokumentu asko ebatsi eta galdu egiten zirelako. Eta paperak pilatu ahala ere larriagoa zen artxiboaren egoera. Hiriaren pribilegioak, adibidez, 33 urtez egon ziren Sanz Izquierdo jaunaren eskuetan. Ez gehiago, ez gutxiago. Beronek egin zion proposamen bat Udalan 1.734 urtean artxiboaren gobernuz. Handik aurrera Udala Batza egoeraren larritasunaz oharturik Erregei aurkeztu zion arazoa. Erabaki sendoak hartzen dira orduan eta Dionisio Berrotarren jartzen dute linko artxibari lanetan. Gaztelako Kontseilu Gorenak ere glitzen kontrol zorrotza eskatuko du.

XIX mendearen hiritarrak prestuen batzordeak antolatzen dira partikularren eskuetan zeuden dokumentuak errekuiperatzeko eta

artxiboaren aurkibideak moldatzeko. Horrela 1830-1845 eta 1871 urteak agertzen dira dokumentatuturik.

Oraindik urte batzuek igaro beharko dute Serapio Mujikari lehen sailkapen serio eta jarraitua egin arte 1919 eta 1926 bitarteko urteetan.

Azken sailkapen lana, 1981tik 1984era burutu zuen Gipuzkoako Aldundiak kontratatutako talde batek.

Oraingo Artxibo Historikoa dauden dokumentuak XV mendetik 1.936ra artekoak dira. Agiri zaharragoak apaimen, traslado eta kopietan gorde zaizkigu. Gainerako dokumentazioaren inventarioa egina da eta Udaltxearn dago noizpait Artxibo Historikora igarotzeko zain.

Aipatu beharra dago Artxibo honetan Inurri, Lezo eta Pasaiko dokumentuak gordetzen direla, Hondarribiaren zati bati ziren XVIII urtean berezi ziren arte.

Artxiboa hasieran Parrokian egon zen, aldaire nagusiaren azpian, kutxa batean, hiru

giltzak itxita.

1.772an kanpandorreko gela batera eraman zuten eta bertan irauan zen 1.905 arte. Urte hartan Herriko Eltxera eraman zuten eta hantxe egon zen 1.967an, Udaltxeara berregileko lanak zirela eta. Berogarara eraman zuten arte. Berogar, Eusko Jaurlaritzak duen mikroilmategian egin zen, aurtengo irailera arte. Egondaldi hori aprobetxatuz 1.500-1.799 bitarteko aktak mikroilmatu dira.

Orain, Udalaren erabakiz, behi betiko kokatu da Zuloaga Eltxean.

ARTXIBOAREN BANAKETA ETA EDUKIA

A atala: 311 liburu / 522 espediente

B atala: 96 liburu / 478 espediente

C atala: 355 liburu / 832 espediente

D atala: 38 liburu / 153 espediente

E atala: 498 liburu / 3.141 espediente

DEMOGRAFIA

UZTAILA

21ean: JULÉN Etxebeste Sorondo eta JABIER Etxebeste Sorondo
Gurasok: Javier eta M^a Lourdes.

► ABUZTUA

10ean: PAUL Salaberria Mujoz
Gurasok: Emiko eta Etxabeste

20ean: UNAI Etxaide Ibarluzea
Gurasok: Antonio eta Nekane

28an: XABIER Arabolaza Landa
Gurasok: José Antonio eta Amaia

31ean: IGNACIO Susperregui Erauskin
Gurasok: Eugenio eta Amaia

► IRAILA

3an: ITSASO Zelaeta Agirre
Gurasok: Juan Alberto eta M^a Eugenia

12an: MIRAN Amunarriz Esuain
Gurasok: Melchor eta Idoia

► URRIA

1ean: AITANA Estrecha Conejero
Gurasok: Juan Antonio eta M^a del Carmen

9ean: JOSU Arbelaz Euzabehar
Gurasok: Jesús M^a eta Nicolasa

10ean: ANDONI Dieguez Amunarriz
Gurasok: Alfonso eta M^a Tere

14tan: ANDREA Gallo Urtzbera
Gurasok: Juan Manuel eta M^a Carmen

20ean: AXEL Canton Inoiti
Gurasok: Antonio eta M^a José

► AZAROA

1ean: JAIME Atristain Mancidoro
Gurasok: Pedro M^a eta M^a Elena

10ean: MARTÍN Muguruza Etxebeste
Gurasok: José M^a eta Elena-Amaia

10ean: JON Olazabel Amunarriz
Gurasok: José Gregorio eta Maite

12an: JOKIN-ANDONI Gokoitxea Susperregi
Gurasok: Francisco Javier eta Tere

25ean: Felipe Gisasola Ron, Eibarkoa eta Maria Agra Jauregi Hondarribikoa

31ean: Vicente Luis Ayuso Morán Irungoa eta Alicia Lizambar Saus, Hondarribikoa

► IRAILA

1ean: Francisco Javier Castro Longo, Hondarribikoa eta M^a Carmen Garrote Lazaro, Irungoa

14ean: Jorge-Fernando Basterrereva Iruzun, Hondarribikoa eta M^a Pilar Bañares Orriola, Hondarribikoa

15ean: Jesús Antonio Velasco Basurto, Irungoa eta M^a Pilar Iza Etxegarai, Hondarribikoa

14ean: Luis M^a Tolosa Martín, Irungoa eta María Guzmán Prego, Hondarribikoa

15ean: Fernando Verde Gómez, Hondarribikoa eta Clara Isabel Inzabal Arestin, Hondarribikoa

22an: Eduardo Joaquín Lopetegui García, Irungoa eta M^a Juncal Caño Olazpola, Hondarribikoa

22an: Adolfo Gómez Fabra, Madrilgoa eta M^a Lourdes Trokacia Alberdi, Hondarribikoa

29an: José Angel Alvarez Soto, Hondarribikoa eta M^a Mercedes Ibarburu Abri, Hondarribikoa

29an: Kepa Barandiaran Garcia, Pasaikoa eta Ana Isabel Lazkanotegi González, Hondarribikoa

29an: José Antonio Lopetegui Gual, Hondarribikoa eta M^a Teresa González Armendia, Irungoa

► URRIA

6ean: Gonzalo Ibarra Rodríguez, Hondarribikoa eta Ana Isabel Bergara Iraeta, Irungoa

6ean: Felix Aginagalde Lizarraga, Hondarribikoa eta M^a del Camino Martínez Redondo, Irungoa

13an: Javier Leikuens Gaztelumendi, Irungoa eta M^a Victoria Mansal Balerdi, Hondarribikoa

13an: Enrique Zapirain Calzada, Hondarribikoa eta M^a Aranzazu Uñsan Galarza, Hondarribikoa

18an: Ramón Jauregi Etxenike, Andoaingoa eta M^a José Sunsundegi Olazabel, Hondarribikoa

20an: Iñaki Olazategi Lejarza, Hondarribikoa eta M^a Teresa Aseginolaza Aranburu, Hondarribikoa

27an: Luis Alberto Martín Perdiguero, Hondarribikoa eta Marina Susperregi Barros, Irungoa

27an: Juan Carlos Dela Cruz Pérez, Irungoa eta M^a Luisa Azumendi Decosta, Hondarribikoa

29an: Lorenzo Villaverde Paz, Irungoa eta M^a Dolores Duque Valverde Hondarribikoa

► AZAROA

3an: Juan Carlos Etxaide Juntorena, Hondarribikoa eta Lucia Ribes Susperregi, Hondarribikoa

3an: Felix Kanpandorre Amunarriz, Hondarribikoa eta Ana Lekunoa Etxagirre, Hondarribikoa

10ean: José Luis Ruano Sánchez, Hondarribikoa eta Ana M^a Lizaso Ensaola, Hondarribikoa

10ean: José Ignacio Irazoki Vicente, Eiztondikoa eta M^a Guadalupe Ezeiza Laruskain, Hondarribikoa

10ean: Andoni Joseba Zamorano Aguirre, Lesakakoa eta M^a Guadalupe Txapartegi Plaskoaga, Hondarribikoa

HERIOTZAK

► IRAILA

2an: Alberto Aramendia Ramos 67 urtekoa - San Pedro Kalea 43

16an: Francisca Beldarrain Larrazabal 75 urtekoa - Guadalupeko Ama

22an: José M^a Aseginolaza Sagarazu 43 urtekoa

28an: Jorge Fuenteseca Calle 18 urtekoa - Baserriri Etorbidia

29an: M^a Patrocinio Escorial Legia 61 urtekoa

► URRIA

10ean: Dionisio Gasoue Unanua 81 urtekoa - Irtierren 13

10ean: Jeronimo Mihura Santos 88 urtekoa - Irtierren 6

10ean: Juan Sagarazu Inarrieta 63 urtekoa - Iparraide Kalea 3

13an: José M^a Olazola Alza 54 urtekoa - Gabriel Aresti Kalea

15ean: Angel Sorondo Lazkanotegi 20 urtekoa - Arrantzale auzoa

21ean: Pedro Vázquez Gómez 83 urtekoa - Mourriane Mitxelena Kalea (Txotximikoa)

► AZAROA

7an: Everilde Fernández Aliza 70 urtekoa - Menduru Auzoa

11ean: Joseta Otamendi Gokoitxea 83 urtekoa - Kosta Auzoa (Eguzkietia)

13an: Rustica Virto Cucullo 76 urtekoa - Almirante Alonso Kalea

EZKONTZAK

► ABUZTUA

Blagan

(lehen orrialdetik)



ZELESTINO JAUREGI: TITTINO

Tittino Hondarrribian jaioa dugu. Hotel Jauregiko semea, biñon mulikotan bertan lanean aritu bazen ere, gaztelan hasi zen bere bizia izango zen motorgintzan eta mekanikan.

Mundu honetan bere eskuetatik zerbaiz sortu duenaren ilusioarekin hitz egiten du bere gauzen gain, begiek dirdir egiten diote, oso gustura aritzen da nolako esperimenduak egiten zituen kontari. Eta dudarik gabe esango dizu esperientzia dela zientziaren ama, zer esaten duen benetan dakienak izaten duen ustie oso eta patxararekin.

- **H.:** San Pedro kalean jaioa omen zera...

- **TT.:** Zelestino Jauregi Martinez, Hondarrribian jaioa. Kapa donearren karrikan, zenbakia 18a, Bar Rafael, 1914. urtean, maiatzan. Bertan jaioa eta bertan bizi.

Familia hiru seme, eta orain sei biloba. Gurasoak: Olegario eta Dorotea, Hotel Jauregiko nagusiak. Bek Hondarrribian jaioak. Hotela heldu da nere atona, Oleganor atattik. Oraindik bada bar Rafaelko atean S.J., atea burmizkoa da. Santos Jauregi.

- **H.:** Hotela aspaldikoa da, attonak jarri bazuen...

- **TT.:** Pues ni jaio biñon lehenengo hil zen atona. Santos Jauregi bastante lehenengo hil zen. Segitu zuen nere atak, famoso Olegariok. Zertik orduan genuen hotela, restaurant, bar, denda, komestibleak, eta estankua. Hondarrribiko bañista guztiak partitzen genituen. Denbora haietan *una institución*.

Jendea etoritzen zen Bilbotik eta bazkaltera. Rafael izanduz zen kozineroa, pixte sartu zen gure hotelean. Gero guk hotela lajatu genuen eta gelditu zen anaia gerra bukatuta.

- **H.:** Izan ere, gerra bitzitu zenuten orduan...

- **TT.:** Gerra denboran, gu joan ginen Frantziara. Atta ta gelditu ziren hemen, hotela

ez lajatzearagatik, baño etorri ziren asturianoak, milizianoak, eta fuera, esto nos hace falta para cuarter, eta aurrean bidali zizuluten.

- **H.:** Zuek non zineztan?

- **TT.:** Gu Ziburun. Batzuek joan ginen hemendik barkotara, batzuek Ondarraitzun deskarga, besteak Hendaian. Gu sartu ginen *Glorioso San Antonior*, Nikolas Tiikian barkuan. Sartu eta zuzen-zuzenean San Juan de Luzera. Hara aialatu eta Herriko Etxera. Han joan zen Rafael kozineroa, ta nere kuñado-beharrara, ta Marino Urrutia ta. Kustuen genuen jendea etoritzen zela, ta batzuek atetzen ziren. *Ze pasatzen da?* galdetu genuen eta, norbait bain baduk familiokoa hire kargo egiltten dena, atera harekin, beste gainekoak Barzelonara, edo kanpo-konzentrazion batera. *Orduan pentsatu nuen amonari etxean aittua nuela osaba Roman Frantziara bizi zela, eta familia han zuela, nere amonari anai bat. Han etorri ziren batzuek galdetu: osan, hemen norbait ezagutzen duzute Roman Agirren familikon?* Bai, bat hor da, barkua pintatzen. Etorri zen motxote bat, bere bigoteakin, egge egiten zuen. *Zuk baduzu izeba Hondarrribian?* - Bai, nere atton aggeba. *Ni naiz zure lehengusua, nahi nuke ia posible zenun ateztea hemendik, gero gu moldatuko gerra no-lopatt hemen, baño hemendik atera. Nik ez dut Barzelonara joan nahi. Hark hartu zigun sei edo zazpi.*

Abalatu zigun eta atera ginen.

Nik arrega eta Hendaian nituen eta hara joan behar nuela alkartzera. Hendaian zubia pasatzen lrungo kamion bat, eta han ama, atta, izeba eta... *-Ze pasatu da?* -Milizianoak etorri ttuk eta aurrean bai! zigutek etxetik!

Handik hilebete betera, lanialak sartu ziren. Atta eta etorri ziren etxera eta kargo egin ziren berriz hotelakin. Eta gu Ziburun.

- **H.:** Eta han ez zenuten problemarik?


- **TT.:** Ez ziguten uzten lanean etitten. Po-


sible genuen egotea, baño kondizio bat: zure diruakin bizi, lanik ez genuen egitterik. Hasieran jendea ez genuen ezagutzen, biñon pixkan-pixkan arrantzaleak eta bateri esan nion: *-Zergatik ez duk argia jartzen hemen barkuan?* Bai, gizona, nik jarriko dia! Jarri nion argia, eta tarteka arraia ematen zigiten. Gero, *estranyis lanean*: beste barko bateri instalazioa jarri nion, *Danok bat, Katto-arrain semeak eta barko berria egin zuten, automobi bat edo beste konpontzen genuen...*

Egun batean, gu joan berriak, bizikleta bat alikaltzera joan ginen. Nik banuen bizikleta, biñon lagunak, Kustodio Martinezek, ez. Hendaia etorri nahi genuen. San Juan de Luzen bai zela eta bieki bizikletan, eta zubian pasaran bi xendarme. Dokumentazioa eskatu eta *en regla*. Ea ez dakigun bi ezin gerala joan bizikletan. Nahi genuela alkiatu, eta nola berandutzen ari zigun, aguro egitteagatik egin genuela. Multa: hirurogetamabost franko. Multa ederra zen. Esan nion ez nula diorrik. Bizikleta kendu ziaten eta lajatu zuten Ziburuko Herriko Etxean. Multa pagatzean bizikleta hartzeko.

Hurrungo egunean dirua hartu nuen, joan nintzen Xendarmerria. Ordaindu nuen, eman zian rezibo ttiki bat, eta gero kusi nuen lapitzakin jarria non *reçu*. Herriko Etxera joan nintzen, Ziburura, eman zian bizikleta eta nik egin nuen reziboa gorde. Handik astebetetara, xendarmark nere bila. Paper bat utzi zuten. Nola ez nuen ordaindu ematen zitelela zortzi eguneko plazua ordaintzeko, edo besteala hurrungo asten juzizioa, eta juzgaduak ematen zuen multa pagatu beharko nuela.

Hurrungo egunean San Juan de Luzeko juzgadora bizikletan. Begian aurreko aldean jarri nion papera juzgadokoa, eta xendarmerria deitu zuen. Esan zuen nola reziboa agertzen nuen, eta nik esaten nion ez banuen ordaindu bizikleta ez nuela hor izango. Deitu ez, biñon gainetik kentzen ez xendarmark, ez zetelako berriz ere kobratu! Ni nora, haiak hara.





- **H.:** Orduan haien gustokoa izango zinen...

- **TT.:** Lagun bat banuen, Jose Goya, *Tofo*. Bazuen zitroen bat, eta Sarara joan behar genuela. Kotxea nik emaki nuen, eta Sarara aialtu behar genuenean xendarmeak. Xendarmeak ikusi zirenean aguro aito neri. Karne eskatu zian, nik espainola izaki, ez zuela balio eta bota. Nere lagunak izaki, eta xendarmari zuretat ez badu balio, egintzu mesede dokumentua hartu eta entregatzea. Besteak eman zian, eta esan zian karne frantsesa atetzeko.

Esaminatu eta eman ziaten frantsesa. Karne bidali egiten zuten etxera. Jaso nuen esan zian Totok, *hoa, buelta bat ematera, zertik hire atzetik ibiki ituk!* Kotxea hartu eta aliguazilak ikusi eta farrez farrez ea karnerik bainuen. Frantsesa erakutsi eta balio du?, eta aurrera.

ARGIA BARKUETAN

- **H.:** Barkuan argia jartze kontua nola izan zen?

- **TT.:** Hondarribian lemixiko argia nik jartzen nuen. Nik orduan hamazazpi bat urte izango nituen, eta oraindik tailerrik ez nuen, bixin esan nuen: - argirik zergatik ez duzia jartzen? - Nik jarriko duk argia! Frantsesak gu biño abila goak ttuk eta ez ditek. - Nik esan diet jarriko dutela. Egun batean esan zian: - *Jarriko huke?* Nonbait Calderonekin hitzegin eta ea posible zen. Barko bat zen *Momorrua*. *Goizeko Izarra* izena zuen.

- **H.:** Eta zuk argia jartzen...

- **TT.:** Egun batean Calderon makinistekin: *Zer egin behar duk?* - Bateria eta dinamoa jarri. - Hi, niri martxa kentzen banak barkuari, hi ta diamoak *biek putzura*, desafioa.

Hari jartzen argia, orduan argi gutxi ibiltzen zuten: farol bat tximinian, eta karburorako farol bat makinan, besterik ez zuten ibiltzen. Jartzen nion *tulo-farola* deitzen ziotena txi-

minian, aurreko bodegan beste bat, makinan, eta konpasan.

Inork ez zuen jarri nahi argi hori, hura barkarrik ibiltzen zen.

Egun batean, esan nion Fausto Sagarazuri. *Garestia zela eta... - Bizu, trato bat egingo duzu: zuk hogeituro gastatuko duzu urtean karburorotan. Nik jarriko dizut argia, eta zuk neri eman nazu karburorotan gastatzen duzuna. Nik jarriko dizut argia, eta zerbait fallo baduzu, nik konponduko dizut.* Ez zuen nahi izanduz. Egonduz zen urtea ta gehiago *Goizeko Izarra* bakar bakarrik argiak.

- **H.:** Bentajaren bat izango zuten ba...

- **TT.:** Neguan itsasoan aritzen zirenean, kamiona hartzeko aguro allatu nahian honara ibiltzen ziren. Orduan hiru kamion besterik ez ziren. Zeren lehenengo etorri ibiltzen ziren. *Goizeko Izarrak* arraia balin bazuen eta beranduxeago heldu bazen, bahiara aialtzen zirenean egiten zuten seinia goiko argiak: argia itzali eta piztu, itzali eta piztu, itzali eta piztu. Handik pixkatara berriz. Eta hemen zirenak kamiona hartzen zuten *Goizeko Izarrantzat*. Besteak etortzen zirenean: - *Eta arraijak ez badu?* - *Nik etzakiet, hau Goizeko Izarrantzat!* Denak protesta.

- **H.:** Eta beste barkuak noiz hasi ziren argia jartzen?

- **TT.:** Urtea pasata hasi ziren. Eta arrantzale batek, Fausto Zubillagak jartzen argia *San Francisco*. Beste barkuak jartzen nion *gero, Santa Cruzeko Timo* dirua aurreratzen ari zen puentea egiteko, puenterik ere ez zuten ematen orduan. Bentajik haundiena zuten argia elektrikoak patroiantzat, zertik itsasoa zenean, haizea zenean, konpasan ematen zuten olozko argia itzali egiten zen, eta konpasik gabe gelditzen zen, eta ibiltzen zuten txotxua kubiertapean oloa kanbiatu eta piztu eta atzera ematen zion.

Timok esan zian puentea bixin nahigo zuela argia. Orain esalozu argirik gabe *joateko!*

- **H.:** Gogorra izaten da hori. Momentu batean ikusiko zuten eudek ere hobe zela, biñon amorrik ematen ez. Bildurra edo?

- **TT.:** Erderez esaten da: "El hombre es un animal de costumbres", bere martxa, eta izutu egiten dire gauz berriatzat. Lemixiko barkua ekarri zutena gasoilezkoa, lehen bajoreakin ibiltzen baziren, ekarri zuten *Beti Juan Manuel*, hogeitabost zaldiko gasoilezko motorra, alemana. Hori da lemixiko *Tuku-tuku*, zertik arrankatzen zutenean *tuku-tuku-tuku-tuku* soinua hori egiten bai zuten.

Badakizu ze egiten zioten txarra dela esateagatik? Eginketu diote tximinirik uraz beste motorra, arrankatzean dena ur. Beste batean, motorra arrankatzeak metxeroa ebazti, laterik ez, etxean barkua. *Ikusten duk, motorrak ez ditek balio, etxean orain ere!* Nahi ez gauz berrin bat. Eudek ez ibiltzeagatik, gezurra iduri du, biñon egia da hori.


- **H.:** Barkuan argia jartzeko idea nondik etorri zen?

- **TT.:** Nik esan nuen: *Automobilak badu argia, zertik ez da posible iguala jartzea?* Nik ikusten nuen automobilak argia bai zuela, automobilak bezala, dinamoa bat jarri eta bateri bat jarri, eta bonbilak. Besterik ez, ez da inbentorik hori.

- **H.:** Eta sekreto guzti horiek, elektrizitatea, motorrak... non ikasi zenituen?

- **TT.:** Nik hamalau urtetakotz ikasi nuen automobila ibiltzen. Etxean bagenuen bat, 1927an, hogeiturokin eresia. Gero, hamasei-hamazazpikin, etxean jakin gabe eta ibiltzen nintzen. Eta nik nere baitan: *eta ni Nafarroa aldera joan, nin zerbait pasa, trenik ez, taxi hartzeko dirorik ez, nik zerbait ikasi behar diel lemixi zer den.* Neguan nola denbora asko baigenuen, lan gutxi hotelean eta dendan, goizetan Valletekin ibiltzen nintzen txoferu, eta arratsaldetan tallerren pintxo sartu.





TAILERRA ETA MOTORRAK

- **H.:** Eta zuk gaztetatik tailerra jarri zenuen....

- **TT.:** Bai, nola anaia ta gelditu ziren hotelean, neri gogoratu zian tailerra jartzea, gerraz geroztik. Zumaitik Yeregi etortzen zen motorrak saltzera, eta esan nion tailerra irekitzeko nahi nuela ikasi inyektoreak eta bonbaken asuntua, eta ea utziko zian bere tailerrean lan egiten ikasteko. Baietz esan zidan Eta egon nintzen bi edo hiru hilebete.

Gero, tailerra jarri nuen ezaguera batzuekin, bestela besten eskutan zera. Kaso hori pasatu nau, Santa Cruz barkuakin. Hori Gabriel Aizpuruaren klienteak ziren, biñon egun batean etorri ziren ea begiratuko nuen motorra, motorra gaxki ibilki zela. Joan nintzen begiratuzera, eta dena ondo, biñon bonba tailerrean begiratu nahi nuela. Ezetz. Bilbaon begiratu zutela eta hura ondo zela. Ekarri nuen tailerrera eta ikusten zen gaxki zela. Konpondu nuen eta orain ondo ibiltzen duk!

- **H.:** Motorrez aparte, bestelako maxi-

narik ere egin ketu duzu....

- **TT.:** Tailerrean askotan tarteak izaten ziren lanik gabe. Eta hasi nintzen enkortadorak egiten. Riojatik barrira bidaltzen ziguten, hamabost egunean reposo egin, eta enboteiladorea etortzen zen bere kortxo eta etiketakin. Guk botliak preparatu eta berak betetzen zituen botliak.

- **H.:** Motorrak egin ttuzu makina bat....

- **TT.:** Behin, Yeregi konpromiso bat zuela, hogeitazaldiko motorra Ferrolekotz entregatu beharra eta denborarik ez egiteko. Nik egingo nuela esan nion. Egin nion. Ibilko zen noski. Ferrolera eman zuten, bueltan ez zen etorri, biñon Yeregin izenean.

- **H.:** Hamar zaldikoak ere egin omen zenituen....

- **TT.:** Bai, lemixi egin nituen hiru. Denak Zarautzera saldu, argian falla zen, eta hara saldu nituen.

Tikiagiok ere egin nituen, seikoak. Lemixio martxan jarri zena 1948an, jao zen. Bonba inyektora falta nuen. Kontrabandista-

ki esan, eta hamaika mila pezeta kostako zela esan. Aste Santuan heldu zen. Aklino Garmendia Madrira zihoala arraiakin, eta ea mandatuia egingo zian. Berak ez zuela denborarik eta ni joateko. Madrira joan eta suerte izugarria izandu nuen. Lagun katalan bat banuen Madrident, eta haren bitartez izandu nuen behar nuen bonba. Hura asnasia hartu nuen! Prezioa: larehunda berrogeitamar pezeta.

Hurrengo goizean motorrari bonba jarri eta ta-ta-ta-ta

Barko bat egin behar izandu nuen era kusteko nola ibiltzen zen. Halako sei egin nituen eta ederki saldu ziren.

- **H.:** Motor kontuan zuk ezagutu duzu netik kanbio ederrak izango ziren....

- **TT.:** Orain bai, biñon urte askoan ez 67n montatu nuen azkeneko barkua. Orduan hasi ziren estranjeroak etortzen. Bitartean Yeregi eta Unanue besterik ez ziren kosta guzian. Ez zen abantze haundirik egin.

'EUROPA'K 1, EUSKALDUNAK ESPERANTZA

Europar sartuko gaituzte orain.

Ez dakit zer etorkizun izango duen Hondarribiko flotak Europa batu eta berriak eskaintzen dion babes berri honetan.

Euskaldunok Europa zaharriari begiratu badiogu, ez dugu estatu zantzarzarten-gandik laguntzarik jaso, handi guztiek bat egin izan dute txiki-xehia zantzarzete. Jainkoaren legea dela ere esan izan digute, arrain handiak txikiarekin naturalki egiten duena ere Berak jarritako legea delako, alajainai!

Ez dute mokau handia lapurretan jan bakkrik egiten, arrazoi izan nahi dute gainera.

Jainkoaren izenean agintzen zuten erregeak ziren, eta kito.

Egia esan, nik badut Europako Elkarte honengandik, Espainiak eta Frantziak eskaini diguten baino errespetu demokratiko zabalagoaren babesa lortuko dugunaren esperantza.

Ez federik, esperantza baino.

Halere, Bruselan, Elkartearen hiriburuan, irakurri berri dudan zerbaitek kezkatu berri nau. Egia da, irakurritakoa XIX. go his-

toriari dagokiola, eta ez zuzenki leuri egindako, Afrikako herri beltzei baino, halere gizaldi honetan jasan izan dugun portaera eskasak nozitu ditugunez gero, ez dakit irakurri berria dudan historia honekin zer egin, eta **Hondarribia**-ko irakurleei pasako diet.

Bakotzak bere ondorena atera dezala.

XX. goan ezagutu ditugun Europako potentzia gehienak sartu zuten muturra Afrikako aspaldi, eta 1884an Alemaniako Bismarck-ek fata zena! Kamerun jan zuen, gero Togo eta gero... Baina kezka bat izan nuen ez zuela Afrikan lapurretan zebiltzan artean isturlik nahi! beren artekorik ez! Begikako Leopoldo II. ak ere ez, ezetz, beren arteko liskarrik ezetz, Jainkoaren izenean, eta "behin betiko" Afrikako lege berri bat ezarriko zutela, eta, hala, Berlinen bildu eta hara onartu zuten laburpento bat:

"Europar batek egindako esplorazioak, ikusketariari zegokion Estatuari zegokiola, zuzenean bere mende jarri nahi bazuen" "Kosta dominatzen zuenarentzat zela itsasbater hori zegokion lurraldea". Ez zirela kolonia berrin lurraldea erabakitzarakoan, Afrikako herri eta estatuon mugak kontutan eduki

behar". "Koloniak, beste batekin trukatu, bertan behara utzi edo moldaberritu daitezkeen ondasunak dira". "Europarrak zibilizazioa zabaltzeko duten misioak berak nahiko indar duela ekintza horiek justifikatzeko".

Gure kasuan, irakurle, ez gaituzte bakarrik herri bezala zantpatu, besteak zantpatze ere erabili gaituzte. Nire aitan Marokkon egin arazi zioten soldaduzkia, Ceuta eta Tetuana, eta neuk ere bai hiru urtez Tetuan, Tzelata de Anyera eta Targist eta Alkazarzgerren, beste euskaldun pilo batekin, andoaindarrak batzu, ni bezala, eta hondarribiarren bat ere izango zen 1942ko kinta horretan.

Hau irakurri eta gero, datorren Europak euskaldunei zer ekarriko digun pentsatzen jarrita, bada zer pentsat!

Ez okerrena, halere.

Okerrena pasa dugu.

Hemendik aurrerakoak gerok irabazi behar ditugu, herri bezala, hizkuntza bezala, demokratikoki gure eskubideak. Ekialdetik datorrigu exenplua eguzkia bezain argi.

Martin Ugalde

UNTXIEN GAITZETA ZERTXOBAIT

Beti entzun ohi izanketu dut konejuak oso errez hazten diren abere mota dela, baina denbora berean aise hazten dituztela gaitzak eta izurriteak, beraz, zenbait oharpen gogoratzea norbaiti ongi etorriko zaiolakoan, garbitasunari buruz zerbat esaten saiatuko naiz.

Hasteko esan beharra dago, askotan gaitxotasunak untxiak baldintza txarretan egoten direlako sortzen direla, horregatik dauka bere biziko garrantzia garbitasunak, alegia, konejuegia ongi desinfektatuta edukitzeak... Horrela, hona hemen eguneroko oso kontutan eduki beharreko neurriak edo maiz egin beharrekoak:

- Ez delira sar kanpoko jenderik untxitegira, batez ere, gaia honekin zerikusia daukatena (pentsu-saltzaleak, granjeroak, untxi-erosleak, etab.).
- Pientsoa eta ura garbiak erabili eta leku garbian jaso. Ura garbitzeko bili daitezkeen zenbait garbigarri: Kloroa edo klorotik eratorritakoak (%20 kiloro duen 250 zk lejia, 1.000 litro uretan nahasiz, Horrela, litro bakoitzeko 5 mg. banatzen da kontzentrazio hori lortzeko); edo lodoz nahastakoak erabili daitezke (%3 lodoz daraman likidua, hau da, likidua hontako litro bat 2.500 litro urari nahasko zaio). Kontutan eduki, untxiak ez duela sekulan ur zikinik edaten.
- Kaiola eta kaminaren garbiketa. Umaldi bakotzean ongi garbitu behar dute eta ahal izanez gero, aladiatu. Beti ere, oso ondo desinfektatu.
- Umelxoak egin ondoren, begiratu bateren bat hilik ote dagoen, eta baldin bada, ken-

du; umaldiko hondakinak atera; kamin berria ezarri, umeak kontatu. Gauza horiek eginagatik ez du amak kaminua uzten.

- Titi-kenteak oso garbiak dauden kaiolatan egingo dira. Hots, aurrez erreak, desinfektatuak eta idortueta.
- Baldintza txarretan ez da aldiatu behar toki batetik bestera. Ahal izanez gero ez nahasi umaldi bat bestearekin.
- Inguruko mikrobismoa (mikroben ugartasuna) gehitu ez dedin eten gabe burunkatu behar da. Muki-jaioak, erropamakin eta handitsua jotako untxiak berehalaxe kendu.
- Paretak, zoria eta sapaia oso garbi eduki... zeren eta hor biltzen den hautsa baita jermen-infekziozorik handiena.
- Gizona gaitza eramailerik handienetakoa denez, arropaz aldiatu beharko luke granjan sartzen den aldira, lanaz aldatzerakoan eskuak garbitu, erropaminez dagoen koneju bat ukitu ondoren ez ukitu besterik.

NOLA DESINFECTATU

Ondorengo hauek dira gogoan eduki beharreko oinarriko puntuak:

- **Garbiketa.** Tresna zikin bat ezin liteke behar bezala desinfektatu, aurrez oso ongi garbitua edo zepilatua ez bada.
- **Idorketa.** Tresnak ondo idortuta egoteak garrantzi handia dauka garbitasunarako, ezen berez, desinfekzio neurria baita.
- **Desinfekzioa.** Ikuluan edo granjan dauden xomorro txikiak hiltzean datza. Ondorengo erara egin liteke:



- Zenbait egunez tresnak eguzkitan edukiz, presio edo indar handiz ur-lurrina bateaz, suaren bidez, butanozko sugailuarekin.
- Produktu kimikoak erabiliz. Hauex da erarik efektiboena, xomorro-hiltzaile produktuz bereziak erabiltzen direlako.

Edozein moduz, era bat edo bestea erabiltzerakoan, kontutan eduki behar da, sustantzi bakotzak daukan berrezitasunak, zeren zenbait, gauza batzuetarako onak baldin badira, besteetarako ez bait dira egokiak. Alegia, denetarako balio duen produktorik ez dagoela, horregatik da inportantea gauza guztien gainetik, garbitasuna.

J. Bereau

"PIRU-MIRU" LEHIAKETA (2)


Deialdi honetan lau erantzule izan ditugu: Martxel Bereau, Aritz Lopez, Nerea Lopez, eta Kontxi Zubillaga. Bosna puntu irabazi dituztelarik, hona hemen, gutxi gora-behera, bidali dizkiguten erantzunak.

1. "Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia" 1.300gn. urtean gutxi-gora-behera sortu zela uste da, lehen Ordenantza 1.566koa delarik. Bere helburua Kofradikideei laguntza morala eta materiala eskaintzea zen eta da, beharrean daudenei batez ere, arrantzaleen alagunei, umezurtzei, e.a.
2. Aurtengo Kutxa eramalea Maria Teresa Sagarzazu Agirre izan da.
3. Jai honetan, kargua utzi behar duen Abade Nagusiak Kutxa eta honen barruko gauzak (Kofradiako dokumentuak, liburuak, urteko diru kontuak, arrain sarrerak eta irteerak, bitxiak, San Pedroren errelikia bat, urrezko kalezua eta diru batzua) ematen dizkio Abade berriari. Horregatik esaten zaio "Kutxa entregala".
4. Kofradiako buruari **Abade Nagusia** esaten zaio, beste karguak **Itsasoko aita-teak** eta **abade txikiak** dira.
5. Karguok San Pedro egunean aukeratzen

dira. Kargu hartzea lehen Santiago egunez egiten zuten, aurtin, berriz, San Inazio egunean. Patroiek aukeratzen dituzte eta azken urteotan enlaze sindikalek ere eman omen dezakete botua.

LAUKI MAJKOIA

Deialdi honetan Joxe Genua hondarrribiar trebeak bidali digun "lauki majkoi" osatu behar duzue.



Lauki honetan 16 zenbaki jarri behar dira, batekik hamaseira, gortik behera, eskuinezker eta zeharka (bi diagonaletan) batuketa eginik beti 34 ematen dutela.

Besterik gabe zaila izango delakoan, laguntza gisa zenbakien erdiak (8) ematen dizkizuegu. Zuek beste zortziak asmatu behar dituzue.

16		13
5		8
9		12
4		1

Ezin asmaturik ibiliz gero, Joxe Genua aurkitu beharko duzue eta berari galdetu ondoren erantzuna betiko helbidera bidal ezazue.

"PIRU-MIRU" lehiaketa
Euskara Kontseilua
UDALETXEA
Kale Nagusia
20280 - HONDARRIBIA

SAGUZARRA - XAUXARRA

SAGUZARRADI GERTATURIKOA

Saguzarra edo gautxorria oso berezia da. Nahiz eta hegan ibili, ez da txoria.

Behin borroka handi bat izan omen zen hegazti eta abereen artean. Denak basatiak ziren. Gure saguzarra ixkin batetan zegoen. Txonek irabazten zutela konturatu zenean, txonen alde jarri zen. Baina txorien erregeak arranoak-galdetu zion:

"Zu txoria al zara?"

"Bai. Begira nere hegalaik. Zuek bezala ibiltzen naiz eta bi hanka dauzkat, zuek bezala.

Borrokak jarraitu zuen eta abereak hasi ziren garaitzen. Hauengana doa gure saguzarra eta animalien erregeak lehiak galdetzen dio:

"Ez al zara zu txoria, gure etsaia?"

"Ez, ez naiz txoria. Ni zuen laguna naiz. Begira: mokorik ez dut, hortzak batzik. Begira nere belarriak. Gainera, lumarik ez dut. Ugaztuna naiz. Oinak eta besoak ditut. Bai txoniak, bai abereak, zalantzan gelditu ziren eta ez ziren saguzarraz fidatzen. Orduan lagunik gabe gelditu zen eta inork ez ikusteko, gauzez ateratzen da.

SAGUZARRAREN BEREZITASUNAK

Gauzez iriteten den ezkerre, ez du batere ondo ikusten. Baina bere belari handiak honetan laguntzen diote. Begira nola:

Hots egiten du oso ahots zorrotza- eta aidean hots honek oztopo edo traba bat aurkitzen duenean berehala somatzen duela belarriek. Era berean oharzten da traba hori hurbil ala urruti dagoen. Honek balaitzen da, jateko ta golperik ez hartzeko.


Gaur eguneko RADARren berezitasun nagusia ere hori bera da. RADAR hitz inglesen laburpen bat da eta esan nahi du: **Iratiaren bidez** (uhinen edo onden bidez) **aurkitu ta urrutitasuna** zenbat metro edo kilometrokoa den **kalkulatu**.

RAdio
Detecting
And
Ranging (reintxin)

Askotan zintzilik egoten da. Nahiz eta gutxitan ikusia, gure artean oso ezaguna da.

Gerra aurrean bazen Hondarrribian, "xauxar" izena zuen elkarte bat.

Joxe genua



l = bere abotsa edo karraxia.
((= bere uhin edo ondak.
X = oztopoa edo, behar bada, janaria ere bai.

"VIRGULIÑE" TALDEAREKIN HIZKETAN



ere, hurrengo antzerkia euskaraz egingo dugula agintzen dugu.

-Zergatik "Virguliñe" izena?

-Guk izen "hortero" bat nahi genuen taldearentzat eta honi asmatu genuen. Gainera, "V"-z idatzteak are horteroagoa egiten du deitura.

-Diru laguntzarik jaso al duzue?

-V: Hiru emanaldiak xoxik kobratu gabe egin ditugu, "por amor al arte". Materiala ordaintzeko laguntza txiki bat espero dugu Udaltearean aldetik.

-Zinemagintzan ere ba omen zabilzate...

-V: Bai. Udan "Locura de muerte" labor-metraiara egin genuen, eta orain beste filma bat egiteko asmoa daukagu.

-Ba al duzue zuzendaririk, gidaririk edo antzezkerik?

-V: Ez. Geuk egiten dugu guztia. Baina, noski, prestakuntza behar dugunez, antzerki ikastaro batzulara joatekoak gara. Azaroan bertan hasko gara.

-Nondik eskuratzen dituzue obrak?

-Aurrekoa geuk asmatua da. Ibonek idatzia.

-Geroko asmoak direla eta, komedian jarraitu behar al duzue?

-V: Orainoz bai. Baina obra dramatikoaren bat egitea ere ez legoke batere gaizki.

-Beste autoreraren obrarik antzezteko asmorik?

-V: Seguraski bai. Hurrengo antzerkian, adibidez.

-Beraz, baduzue berehalako proiektorik ere...

-V: Bai. Sto. Tomas egunean Institutuan egingo dugu antzerki bat, eta hurrengoak ekainean, beste irakasle bat jubilatuko dela eta. Esan bezala, hurrengo antzerki hori beste autore batena izango da.

-Herriz herri jiraren bat egitea gustatuko al litzaizue?

-V: Bai, noski!! Esperientzia polita litzaiteke...

-Esaiguzu, bukatzeko... Hermitarrentzat ere, laster egingo duzue beste obraren bat?

-V: Hala espero dugu...

-Mila esker, bada, "Virguliñe", eta suerte handia izan dezazuela.

-V: Bale. Agur!

-Orain hobeto ezagutzen dugu "Virguliñe" taldea.

-Bai, eta agindutakoa betetzen badute, gero eta hobeto ezagutuko dugu gazte koadrila honen balioa. Egia esan, badago Hondarribian honelako zerbalten premia...

AMAIERA

-Kaixo, Zuek "Virguliñe" antzerki taldekoak zarete, ezta?

-V: Bai, horrela gara.

-Beno, zeintzuk zarete partaideak?

-V: Hamairu lagun gara eta izenak aipatuko dizkizut. Ma. Sol Alza, Ainhoa Arbelaitz, Klaudia Behobide, Junkal Elduayen, Marian Emazabel, Monica Enparan, Estibalitz Etxe-beste, Nerea Iridoy, Maria Larrea, Sara Martinez, Itsaso Olaskoaga, Ibon Sanz eta Leire Ugalde.

-Eta noiz entsaiatzen duzue?

-V: Antzerki bat prestatu behar dugunean egunero egiten ditugu entsaiak, bestela ez daukagu egun jakirik. Komeni eta ahal denean.

-Ba al duzue lokalik?

-V: Ba ez, baina Sainduan entsaiatzen dugu eta oso ondo konpontzen gara.

-Zuek oraingoz hiru errepresentazio egin dituzue. Zein antzerki obra antzestu duzue?

-V: "A la tarde tomando el té" izeneko obra. Gaia, telebistako "magazine" batean gertatzen dena da. Bertan entrebistak, musika, dantzak, e.a. dituzularik...

-Baina zuek, euskaldunak izaki, O.H.O. eta batxilergoak euskaraz egindakoak, nolatan egin duzue antzerki hau erdaraz?

-V: Beno, lehen esan dugun bezala, lehenengo aldiz institutuan eman genuen obra, irakasle erdalduen baten jubilaiziora zela eta. Gainera, Institutuan euskaldunak eta erdal-dunak gaude. Horixe izan zen arrazioa. Hala

-VIR-GU-LI-ÑE, VIR-GU-LI-ÑE, VIR-GU-LI-ÑE!

-Tssssss...! Zer ote da zarata hon?

-Jendearena, neska! "Virguliñe" ikusteko irrikitan dagoen jende piloarena.

-Virguliñe?... Zer da, bada, Virguliñe?

-Baina, ez al dakizu oraindik?! Benetan? Zu ez zarela herrian bizi ematen du. Virguliñe, Hondarribiko Institutuan sortutako antzerki talde bat da. UBIn daude orain. OOUin alegia eta ez UVIn, osasun ederra dute eta.

-Hondarribiko Institutuan? Eta nolatan?

-Ba, lehenengo ikasturtean antzerki bat egin zuten kurtsu bukaeran.

-Orduan normala da nik ez jakitea, ez bat naiz Institutuara joaten.

-Baina, neska, saio gehiago ere egin dituzte. Irailaren 15ean Ama Guadalupeko-an, Urriaren 6an, Amuteko jaietan, eta pasa den Azaroaren 2an Nafarroako Etxaurin, Iruñea-tik 15 kilometrotara.

-Hori da martxa hori! Eta antzerkiak gain, besterik ere egiten al dute?

-Bai, zinemagintzan ere ba omen dabilta. Udan filme bat egin zuten eta orain beste bat egiteko asmatan dira. Begiral Hortex datoz, hain zuzen ere...

-Hurbilduko gara galdera batzuk egitera?

-Goazen berehala!



MARIA ANJELESEN OROITZAPEN ALAIA

Pentsatzen nuen, bai, lagun gehiago ere utziko zituela minduta joan zitzaigun lagun maitearen azken agurrak.

Bere alaitasan eta irrifarrak berehala gustora sentiarazten bai zuen, berarekin elkarrizketan egoteak, denbora berean hain berea zen baserritar kutsuko hizkera entzunaz. Beraz, ez zitzaidan balere harritu, joan den hilaren 16an Amuteko Kaputxino elizan, oroitzak hark bultzatuaz, ikusi, entzun, eta sentitu nuenarekin.

Lehen ere aipatu izan ditugu joan zitzaigun lagun maitearen ezin ukatuzko jatorrisuna eta agerpenak herriko ohiitura eta tradizio gehienetan parte hartzen zuelarik, baina ahaztu zitzaigun aipatzea Aita Lazkanok Amuten sortutako "Maitexu" Koruko partaide ere bazela. (Zen hau aipatzeak Hondarribiarrok berarekin zorretan gaudezela gogorazten dit, herrian egindako lan ona dela eta).

Ba, "Maitexu" talde hark, hogeitar urteren buruan, nahi izan du nolabait Ma. Anjelesenganako maitasun oroitzak agertu,

berriro denak elkarturik, eta fihezia guziarekin hiru kanta ezti eta hunkigarri abestuz, ixiltasun osoa lortu zuen elizan, begiak bustitzera ino.

Askotan esan ohi da ondo ikasten dena ez dela errax ahazten. Ba, esaera hau ondoko azpimarratu zuen talde honek. Bestela, nola liteke hiru errepika edo entsaioarekin bakarrik horren ondo kantatzea? Gaizki esan dut "hiru" lehenbixikuak ez bai zuen balio izandu.

Jakina, hainbeste denboran elkar ikusi gabe, ezin inolaz ere ixildu, besarkadak eta galderak nahastean zirelarik: "Neska, zer modu aspaldian?", "Qué guapa estás, chica!"... Kolpetik hainbeste oroitzak leku berean... elizako txoko hartan... Bihotz-beranak Garbiñe gaisuak, armonio gainean burua etzanik, negarran eman zion; bakoetak bere sensibilitatea izaki...

Meza bukatu ondoren, ikustekoa zen kantarien poza, hain ongi atera zitzaizela eta. Igandero meza entzuteko chitua zutenek ere agertzen zuten beren atsegina. Kantari asko-


ren senarrak ere hantxen arkitzen ziren arpegi harrituaz, ez bai zuten uste beren emazteek hain ongi kantatzen zutenik. Hauetako batek bere esateko modua finegi ez bazen ere, bihotzetik honela esan zion bere lagunari: "¿Has visto qué 'sascia' tienen todavía las viejas?". Ondoa arkitzen zen kantari batek, bi aldiz pentsatu gabe, erantzun zion: "¡Oye, oye, de viejas nadal ¡Viejo será tú!". Noski baietz!

Gero denak zertxobait hartzera joan ginen Antoniren ostatura eta aipatu beharrean arkitzen gara zernolako kroketa goxuak jan genituen bertan, Antoni bera bezalakuk.

Bukatzea goaz esanaz, oroitzapen eta alaitasun giroak lagundu zuela beti, Ma. Anjelesen oroitzak ezin bai zuen bestelakorik sortu.

Guk bai berriro ere esaten dizugula bihotzetik: "Ez zaitugu errex zintziko".

KIROL KAIA HOR, KIROL KAIA HEMEN



Joan den urrian Eusko Jauriritzak 1.096 milioitako dirutza onartu zuen Hondarribiko kirol kaia egiteko. 25 milioi aurten gastatze-koak dira, 586 datorren urtean eta gainerako 483ak 92an.

Aurrekoan adierazten genuen bezala Hondarribiko Udalak oraindik ez du iritz definitiborik eman proiektuaz eta bere adostasuna ematekotan baldintza batzuen garantia nahu du.

Txingundin bi kirol portu egiteak dexente aldatuko ditu badiaren itxura eta egoera. Hendaian aurrera doa Sokoburuko asmoa. Hondarribian, berniz, Hego Euskal herriko kirol porturik handiena egingo omen dute. Bi proiektu berri parez pare, eta metro gutxitarra.

Due la urtebete Eusko Jauriritzak badiaren azterketa enkargatu zion Ingemisa enpresari. Helburua, Gipuzkoako ekosistema busti garrantzitsuenara garaiz salbatzea zen. Lerro hauek idazten ari garelarik iritsi omen dira azterketa horren lehen faseko emaitzak. Ongi aztertu behar dira orain. Dena den, ez omen dirudi kirol kaiaz gauza handirik esaten duenik, onti honiek toki mugatu batera bildu behar direla izan ezik.

Hiru dira gai honetan harremanetan ari diren protagonistak: MOPU, Eusko Jauriritza eta Hondarribiko Udala. Eta oraindik ez dago adostasunik beren artean, ez MOPU eta Eusko Jauriritzaren artean eta ez Eusko Jauriritza eta Hondarribiko Udalaren artean.

Hau dela eta, txunditurik utzi zuen bat baino gehiago "Europa Azul" aldizkariak urriko ale berezian argitaratu zuen berriak. Aldizkaria, oso apain eta koloretsu argitaratua, etxek etxe zabaldu zuten herrian dohainik. "El primer puerto deportivo del País Vasco se construirá en Hondarribia" zioten azaleko letrik; barruan neurri handitako fotomontaje batean proiektua aurkezten zitzaigun. Berriaren arabera, kirol portuak bultzada ederra emango dio herriaren ekonomia.

Jauriritzaren lehen asmoan kaian mila onti gutxi gora-behera sartzea zen, baina Udalarekin hitz egin ondano 750era gutxienez jaitsi da oraingo proiektuan. Argazkiak gaizki adierazten omen du hor izan ditekkeen, hondartza lehengo tokian agertzen bait da, eta asmoaren arabera 100 metro aurreratu behar da. Aurreratze hori, hondartza handitzeaz gainera, oso beharrezkoa da ura askoz errazago berritzea, izan ere, ura berriki ezagatik, hondarra lohi bihurtzen ari omen da hainbat tokitan. Hondartza berez aurreratzen ari da piskanaka-piskanaka eta berezko prozesu hori azkartu egin behar da orain.

Bestelak, argazkian dauden fondeoak ere kendu egin behar dira, horrelakorik ez bait da egongo. Argazki dotore horrek ulertzen lagundu baino areago nahasi besterik ez omen du egiten.

Jendea gehien harritu duena aldizkariak aipatzen duen hondarribiarren erabateko

adostasuna da: "Hemos llegado a un acuerdo satisfactorio, para ambas partes, con el Ayuntamiento de Hondarribia" esan omen zion aldizkarian Ignacio Ipiña Garraio eta Obra Publikoetako kontsalariordeak eta, bestetik, Esteban Olaizola Kofradiako burua proiektuaren alde dagoela ere esaten zuen. Biek, Udalak eta Kofradiako Aba Nagusiak, berehala adierazi dute beren harritura aldizkariaren aipamen borobil eta triunfalistik direla eta, erabateko adostasun horiek ukatuz.

HBk ere prentsaurreko bat eskaini zuen Eusko Jauriritzaren indar gehiegikeria, Udal Gobernu taldearen "okultismoa", eta funtsean proiektu horrekin minoria bat laboratu nahia gehiengoaren kaltetera.

Azaro honen 14ean beste bilera bat izan da Udala, Eusko Jauriritzako Galo Díaz eta Gipuzkoako Assas portu arduradunak, eta teknikan batzuen artean aurreproiektuaz mintzatzeko.

Udalak bere iritzia azaldu zuen, eta Patxo de Leon arkitektoak ere Udalaren eskaritz egindako proiektu alternatiboa aurkeztu zuen. Proiektu bion arteko alde nagusia gaur egun ez da darsena, inguruaren ordenamendua baizik. Patxo de Leonena egokiago dator, noski, Udalak eremu horretarako zuen asmoarekin. Proiektu honek, adibidez, espigoiko paseoa portuaren sarrerak ebakita geldituko delarik, igarobide erosoagoa eskaintzen du oinezkoentzat, baraderoaren norabidea aldatuta. Bestela, kotxe aparkamenduak direla eta, Eusko Jauriritzak ontzat eman du Udalaren proposamena herritarren beharrek gogoan harturik; hondartzako aparkalekuan 1000-1200 plaza publiko egongo dira; pribatuak barruan egongo dira eta gutxi izango dira.



Parte bien arteko gai katazkatuena arazoaren ikusmoldean datza. Bileran, Udalak Plan Bereziak hitz egin nahi zuen. Haiek, berriz, ez omen zuten nahi. Portu Zuzendaritzak portu soila ikusi nahi du; portu egokia egin, ordaindu, eta kitto. Hortxe bukatzen da bere zeregina. Inguruarekiko eragina, bideak, zerbitzuak, garraioak, irteerak, atsedean eta kirol lekuak, herriaren beharrak eta abar, ez zaizkio axola. Udalak, ordea, beste horretan ere konprometitu nahi du Portu Zuzendaritzak portua ez diren baina portuaren eragin zuzena jasango duten eremu hurbil honi egokitzeko lanetan. Elkarizketak horretara iristen direnean, ordea, uko borobila ematen dute eta hortik aurrera paretarekin hitz egitea bezala omen da.

Udalak ez dio Portu Zuzendaritzari birmoldaketa horiek ordaintzeko dirurik eskatzen, bai ordea bitarteko lana egin dezala beste zenbaiten aurrean, MOPUren aurrean adibidez. MOPUrengandik 100 metroren "desafektazioa" lortu behar da, polikroldegia egin ahal izateko.

Bestetik, MOPUK berak ere, Kosta Zuzendaritzak zehatzago, ez du aurreproiektuaz hitzik eman. Froga dadila, eskatzen du, ez da goela portua atzerago egiterik, futbol zelaia eta atletismo giharen tokian adibidez. Hori, ordea, 347 milioi pehareko kostako litzateke, arroka gogorra zulatuta behar litzateke, e.a. Planteamendu horrentzat, Udalaren ezezkoa erabatekoa da. Futbol zelaia eta atletismo pista ukutuezinak dira berarrentzat.

Azken elkarizketa horretan Kai Berria, "beteranoen" portua, Kai Zaharra e.a. ere aipatu omen zituzten. Kai Berrian ur gaineko pantailan flotante bat jarzea proposatzen dute kontradike gisa, ehun metrotakoa, deskargak egiteko, hormigoizkoa (barrutik hutsik, noski), 200 atrake egiteko modukoa. Txipironak joan omen litezke hara. Urak, berriz, internazionalak dira eta presionatu egin behar dute, frantsesek ez bait dute egocera legez arautu nahi, arautu gabe libreago ibiliko bait dira. Iparreko dizearen beste aldean, Santelmo azpian, bainu lekua izateko ordnatu liteke.

Kirol portua egitekotan, orain arteko estudioen arabera (IKEI, Prospektiker eta abarretan), proiektuaren tokian da egokiena, hondartzaren hasieran.

Portuaren jostioan E. Jauriluzak, Komandantziak, Udalak eta Nautikoak izan lezakete parte. Bestetik, eta herrian zabaldu den sumurrian ez bezala- amarrak publikoak izango omen dira eta ez dira salduko, alkilatu baizki, 13 pezeta metro karratuko eta eguneko, 100.000 pezeta urtean.

Horretan daude gauzak Eusko Jauriluzak milioikada hori laster gastatzea erabaki duenean, Kostako ur eta lur horiek, ordea, MOPUrenak dira oraindik, ez dizkio oraindik transferitu Eusko Jauriluzari.

Herriaren aldetik behintzat, kirol kaja, arantzako portua, hondartza eta inguru osoa moldatuko dituen Plan Berezia antolatuta behar da, erantzun orokor bat emanez.

J.A.L.

EUSKO LEGE BILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK (90.X.28)

	UDALETXEA		KOFRADIA		BITERI		MENDELU		GUZTIRA	
HB	266	25%	333	24%	602	26%	325	23%	1526	24,85%
EA	242	23%	405	30%	587	25%	268	19%	1502	24,46%
EAJ-PNV	229	22%	337	25%	52	2%	277	20%	1371	22,33%
PSE-PSOE	122	11%	83	6%	178	8%	245	18%	628	10,23%
EE	113	1%	112	8%	225	10%	134	10%	584	9,51%
PP	52	5%	56	4%	119	5%	78	6%	305	4,97%
VERD.ECO.	7	1%	8	1%	7	0%	13	1%	35	0,57%
E.H. BERD.	8	1%	6	0%	9	0%	10	1%	33	0,54%
IZQ. UNID.	2	0%	1	0%	10	0%	12	1%	25	0,41%
Rz. MAT.	0	0%	7	1%	4	0%	9	1%	20	0,33%
CDS	2	0%	4	0%	5	0%	7	1%	18	0,29%
DEM. SOC.	1	0%	2	0%	6	0%	3	0%	12	0,20%
P.S. TRAB.	2	0%	1	0%	1	0%	4	0%	8	0,13%
P. HUMAN.	1	0%	0	0%	4	0%	3	0%	8	0,13%
LKI-EMK	1	0%	1	0%	2	0%	1	0%	5	0,08%
AL.REP.	2	0%	0	0%	2	0%	1	0%	5	0,08%
J. ALAV.	0	0%	0	0%	3	0%	0	0%	3	0,05%
ZURI	13	1%	14	1%	19	1%	7	1%	53	0,86%
NULO	1	0%	8	1%	7	0%	10	1%	26	0,42%
TXARTEL	1064		1378		2318		1407		6167	
BALIOZ	1063		1370		2311		1397		6141	
ERROLDIA	1763		2161		3794		2702		10420	
ABSTENT.	699	40%	783	36%	1476	39%	1296	48%	4253	40,8%

Hona hemen 1986ko azaroaren 30eko Legebiltzarrerako hauteskundeetako emaitzekin dagoen aldean, PP-ren ordez Coalición Popular zelarik.

	1986		1990		aldea
HB	1350	20,2%	1526	24,9%	+ 176
EA	2205	33,0%	1502	24,5%	- 703
EAJ-PNV	1048	15,7%	1371	22,3%	+ 323
PSE-PSOE	833	12,5%	628	10,2%	- 205
EE	888	13,3%	584	9,5%	- 304
PP	171	2,6%	305	5,0%	+ 134
IZQ. UNID.	5	0,1%	25	0,4%	+ 20
CDS	145	2,2%	18	0,3%	- 127
P.S. TRAB.	6	0,1%	8	0,1%	+ 2
P. HUMAN.	5	0,1%	8	0,1%	+ 3
ABSTENT.		28,7%		40,8%	